

BEZEROEKIKO HARREMANAK



Bezeroekin komunikazio etengabe bat izateko zenbait metodo burutu ditugu enpresako kideok, batik bat, www.dargiadantzaeskola.eus webgunea sortu dugu eta bertan gurekin kontaktuan jartzeko aukera dute, bestalde aipatutako sare sozialetan beti irekita eta prest egongo da gure postontzi birtuala mezuak, erantzunak, eta abar jasotzeko. Gure gmail pertsoalizatua ere eskura izango dute herritarrek, dargiadantzaeskola@gmail.com.

Gero ere, ahots-entzuneko komunikazioa nahiago dutenentzat eta gehien bat sare sozialak erabiltzen ez dituzten pertsona adinduenentzat zuzenduta, telefono mugikor bat izango du gure enpresak: +35633403555.

Azkenik, gaur egun sareetan zenbait jende ibiltzen den ikusirik, gehien erabiltzen diren aplikazioen bidez publizitatea egingo dugu, aplikazio horien barruan sartzen dira bai Instagram, Tik tok edo Facebook. Bertan zozketei buruz informazioa, jaialdi eta antolakuntzen berri eman eta dantzen eta ekitaldien argazki zein bideoak igoko ditugu.